



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

PRENTSA-OHARRA

EUSKALTZAINDIAK ANTZERKI-GAUALDIA ANTOLATU DU BAIONAN, MARTXOAREN 21ean

- Baionako Biltxokok hartuko du gaualdia, eta saio berean bi ikuskizun emango dira, 19:00etatik aurrera: Pantzo Hirigarairen *Dolu* eta Markos Goikolearen *Beren izenez*. Baionako Herriko Etxeak eta Euskal Kultur Erakundeak babesten dute egitasmoa.
- Euskararen Akademiak Bilbon antolatzen duen Lautan Hiru antzerki-jaialdiaren luzapena da ekitaldia. Lautan Hiru antzerki-jaialdiak zazpigarren aldia bete du aurten, eta antzezlan laburrak ematen dira bertan.

BAIONA (2025-03-05). Euskaltzaindiak Lautan Hiru antzerki-gaualdia antolatuko du martxoaren 21ean, Baionan. Biltxoko elkartearen egoitzak (Augustins karrika, 9) hartuko du ekimena, eta saio berean bi ikuskizun emango dira, biak 19:00etatik aurrera: Pantzo Hirigarairen *Dolu* eta Markos Goikolearen *Beren izenez*. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte. Baionako Herriko Etxeak eta Euskal Kultur Erakundeak babesten dute egitasmoa.

2019an jaio zen Lautan Hiru antzerki-jaialdia, Bilboko Udalaren babesarekin, eta hastapenetan ezarritako helburuak ez dira aldatu, hots, euskarazko antzerkia hauspotzea eta antzerkilariei plaza berrietan aritzeko modua ematea. Ideia horri eutsiz, Euskaltzaindiak Baionara eraman nahi du Lautan Hiru.

Baionako egitaraua

Bereziak dira *Dolu* eta *Beren izenez* ikuskizunak. Heriotzaren gaia jorratzen dute biek, baina ezaugarri desberdinak dituzte. Hori bai, umorea ez da falta bietan.

- **Berez izenez.** Haurdun dagoen emakume batek aita galdu berri du. Bere omenez, aitonaren izena jarri nahi dio jaioberriari, baina bere bikotekideak ez du erabakia begi onez ikusten.
Gidoia Markos Goikolearena da. Antzerkilari iruindarrak 2024ko Lautan Hiru laguntza jaso zuen testu honi esker. *Beren izenez* Jaione Urtasunek eta Xabier Flamariketik antzeztuko dute.
- **Dolu.** Hiru lagun beste lagun baten hiletatik atera dira, eta, bidean, beste bizitzarik ba ote dagoen eztabaidatzen dute. Bitartean, ez dira konturatu hil berri den laguna beraien artean dagoela.
Gidoi honekin XXI. Café Bar Bilbao saria eskuratu zuen Pantzo Hirigarai baigorriarrak, eta lana iazko Lautan Hirun erakutsi zen, Café Bar Bilbaon bertan. Hori bai, Baionan aldaketa txiki bat izanen da, Antton Lukuren ordez Mixel Sarratiak jokatuko baitu. Hortaz, Biltxokoa hauek izango dira antzezleak: Anje Duhalde, Mixel Sarratia, Armand Jaunarena, Peio Larre eta Pantzo Hirigarai.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

COMMUNIQUÉ DE PRESSE

UNE SOIRÉE THÉÂTRE EN LANGUE BASQUE À BAYONNE LE 21 MARS, ORGANISÉE PAR EUSKALTZAINDIA, L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

- La soirée théâtre de poche se déroulera au Biltxoko (9, rue des Augustins) à Bayonne où deux spectacles seront proposés à partir de 19h00 : *Dolu* de Pantzo Hirigarai et *Beren izenez* de Markos Goikolea. Le projet est organisé par l'Académie de la langue basque, en collaboration avec la Mairie de Bayonne et l'Institut Culturel Basque.
- C'est la première fois que deux pièces proposées dans le cadre du Festival de théâtre Lautan Hiru organisé par l'Académie Basque à Bilbao sont proposées à Bayonne. Le festival de théâtre de poche Lautan Hiru a clôturé récemment sa septième édition à Bilbao.

BAYONNE (le 6 mars 2025). L'Académie de la langue basque organise pour la première fois à Bayonne, le 21 mars prochain, une soirée théâtrale dans le cadre du Festival Lautan Hiru célébré pour la septième fois à Bilbao en ce début d'année. La soirée se déroulera au Biltxoko (9 rue des Augustins) à partir de 19h00 avec la programmation de deux pièces courtes : *Dolu* de Pantzo Hirigarai et *Beren izenez* de Markos Goikolea ; l'entrée sera gratuite (attention, jauge limitée). Cette soirée est organisée en partenariat avec la Ville de Bayonne et l'Institut Culturel Basque.

Le festival de théâtre Lautan Hiru a vu le jour en 2019, avec le soutien de la Mairie de Bilbao. Les objectifs fixés par Euskaltzaindia dès la première édition restent inchangés, à savoir la promotion du théâtre de poche en langue basque et donner aux artistes la possibilité de se produire dans de nouveaux espaces. C'est dans ce même état d'esprit que L'Académie de la langue basque souhaite maintenant proposer cette soirée Lautan Hiru à Bayonne.

Le programme le 21 mars à Bayonne

Les deux pièces proposées le 21 mars à Bayonne, *Dolu* et *Beren izenez* ont une même spécificité ; en effet, les deux traitent du thème de la mort, mais les deux évoquent cette thématique d'une manière très différente et avec beaucoup d'humour dans les deux cas.

- ***Beren izenez*** Une femme enceinte vient de perdre son père. En son honneur, elle souhaite donner au nouveau-né le nom de son grand-père, mais son conjoint n'approuve pas cette décision.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Le scénario de *Beren izenez*, du navarrais Markos Goikolea a reçu le soutien de l'édition 2024 du Festival Lautan Hiru. Sur scène, nous pourrons applaudir les acteurs Jaione Urtusun et Xabier Flamarik.

• **Dolu** Trois amis sortent des funérailles d'un autre ami commun et, en chemin ils entament une conversation : Il y a-t-il une autre vie ? Pendant ce temps, ils ne réalisent pas que leur ami qui vient de mourir est parmi eux.

21e siècle Avec cette proposition, le Baigorriar Pantzo Hirigarai a remporté le XXI.prix du Café Bar Bilbao l'an passé et son travail a été présenté l'année dernière au Festival Lautan Hiru, au sein du même Café Bar Bilbao. A Bayonne, Mixel Sarratia remplacera Antton Luku, absent ce jour-là, sur scène. Les interprètes seront Anje Duhalde, Mixel Sarratia, Armand Jaunarena, Peio Larre et Pantzo Hirigarai.